

## Zer da zuretzat udazkena?



Udazkena zer da? Erantzun astronomikoa bat izan liteke, baina bakoitzarengan zer ote da udazkena? Galdera horri erantzuten diote pertsona hauek.

### «Natura eta naturaren koloreak da udazkena»

*Adolfo Morais* (Jaurlaritzako Meteorologia eta Klimatologia zuzendaria)

«Natura eta naturaren koloreak. Udazkenean, normalean, ibilaldi luzeak egiten ditut, onddoak bilatzeko edo mendiko koloreak ikusteko. Bakar-bakarrik joaten naiz. Natura koloretan ikusteko garaia da. Gure lurraldean berdea da kolore nagusia, baina udazkenean izugarri aldatzen da: gorriak, horiak... kontraste polita da. Gainera, hego haizeak hegaztiak ekartzen ditu eta horiek ikustea ere polita da».

### «Gaztaina, intxaur eta ezkur garaia da»

*Elena Artika* (Gurelurreko biologoa)

«Paisaia politenez gozatzeko urteko sasoirik onena da. Udazkeneko irudi eder bat, bat esateko, Arbaiungo arrolarena da. Zuhaitz klase ugari daude, bakoitza bere kolorearekin, eta guztien artean irudi kromatikoa sortzen dute. Niretzat, gaztaina, intxaur eta ezkur garaia da. Udazkenean basoak elikagai kopuru handia ematen du. Gizakientzat oso garai garrantzitsua zen, neguan irauteko, eta gaur egun ere basoko bizitzarentzat ere horrela da».

### «Udan hazitako kumeak bizitzen ikasten dute»

*Andres Illana* (Gaden talde ekologikoko kidea)

«Oso sasoi garrantzitsua da, nahiz eta trantsiziokoa dirudien. Udan hazi diren kumeak bakarrik bizitzen ikasten duten garaia da. Horregatik, errepidean animalia asko hiltzen diren garaia ere bai. Gazteak dira, eta negua hasi aurretik ikasi behar dute bizitzen. Udazkena goxoa bada, askok iraungo dute bizirik, baina gogorra bada, ez dute udaberria ikusiko. Gainera, udazkenean euria egiten hasten da, eta horri esker oinatzak ikus ditzakegu lurrean».

[www.ikasbil.net](http://www.ikasbil.net)

## IRAKURRI AURRETIK:

- Zer da zuentzat udazkena?
- Zein kolorerekin lotuko zenukete udazkena?
- Badakizue noiz hasten eta amaitzen den urtaro hau?
- Zer da HABE? Zer da Ikasbil?

## IRAKURRI ETA GERO:

- Zeintzuk dira udazkeneko koloreak Adolfo Moraisentzat?
- Sasoi garrantzitsua da udazkena? Zergatik?
- Ongi eginak daude testuan agertzen diren deskribapenak?
- Deskribapen subjektiboak dira hauek? Zergatik?
- Atera itzazue ideia nagusiak:

Adolfo Morais ➡

Elena Artika ➡

Andres Illana ➡

## EKINTZA OSAGARRIAK:

- Zuen txikitako argazki bat ekarri duzue klasera izenik jarri gabe. Irakasleak trukatu egin ditu bikoteen artean. Esku artean duzuen argazkiaren deskribapena egin beharko duzue eta argazkian agertzen den ikaskidea nor den asmatzen saiatuko zarete.